

HARRERA PLANA

HAUR HEZKUNTZA - LAURO IKASTOLA

SARRERA-JUSTIFIKAZIOA

Harrera planaren helburua ikasle edo langile berriei Lauro Ikastola esparru atsegin eta seguru bezala aurkeztea da, eta egokitzapena errazagoa egitea, bai kanpotik badatoz, eta baita urte batzuk lehenago bertakoak izan badira ere.

Ikastolak garantzia ematen die ikaslearen eta langilearen lehen momentuko harremanei ikastetxera iristen diren unean. Horregatik ezinbestekoa da egoera hau prestatzea integrazio egokia lortzeko.

Ikastola zein ikastaldea arduratu behar dira modu honetan denok abegitsu bihurtzen garelako, aniztasunean elkarbizitzen ikasten dugulako eta aberastu egiten garelako harreman berriekin.

HARTZAILEAK

- Ikastolara lehenengo aldiz umeak ekartzen dituzten gurasoak
- Ikastolara lau edo bost urteko geletara ekartzen dituzten gurasoak
- Irakasleak eta bestelako langile berriak

PARTE HARTZAILEAK

- Zuzendaritza taldea eta administrazioko eta atezaintzako langileak
- Ongi etorrirako komitea:
 - o Etapako zuzendaria
 - o Koordinatzailea
 - o Tutorea
 - o Irakasleak
 - o Ikasle laguntzaileak
 - o Orientatzailea

HELBURUAK

- Antolakuntzan behar diren egokitzapenak egitea, ikasle edo langile berrien onartze-egokitze-integrazioa modu koherentean bermatzeko.
- Etapa osoa motibatzea, giro egokia lortzeko ikasle edo langile berrientzat
- Gure ikasle berriei leku eroso eta konfidantzazkoa eskaintzea
- Giro ordenatu eta eroso eskaintzea ikaskideen/lankideen arteko harremana bultzatzeko.
- Irakasle eta langile berriek ikastolaren historia eta funtzionamendua ulertzea eta ondo moldatzea gainerako lankideekin

URRATSAK

Ikasle berriekin:

- 1.- Zuzendariarekin elkarrizketa datu bilketa egiteko eta umea ezagutu eta argazkia ateratzeko
- 2.- Urteko programazio orokorra helaraztea (egutegi/ordutegiak, komunikazioa, gurasoentzako informazio bilerak, zerbitzuak, etxerako lanen jarraibideak, elkarbizitzaren jarraibide/araudiak, eskola virola eta kultur ekintzak eta ohikoenak diren galderen erantzunak).
- 4.- Irailako lehen egunetan:
 - Tutore zein irakasleei ikasle berrien notifikazioa
 - Tutoretza ordurako ikasle berriak aurkezteko eta talde kohesioa lantzeko dinamiken prestakuntza
 - Ikasle berriaren adaptazioaren jarraipena tutorearen partetik, aurrerago gurasoei komunikatuko zaiena

Langile berriekin:

- 1.- Zuzendariarekin elkarrizketa eta informazio jasotzea
- 2.- Mintegiko lankideekin mailako eta zikloko koordinazioa
- 3.- Tutore izatekotan, tutore batzarrean aurkezpena eta koordinazioa
- 4.- Orientatzailearekin elkarrizketa

.